

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LABORATEGIKO KALITATEAREN ETA JARDUNBIDE ONEN KONTROLA (ZEHARKAKOA)	Iraupena	50
Kodea	UF0105		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Analisa eta kontrola		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Analisi kimikoa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Kalitatea laborategian (Zeharkakoa)	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Laborategiko datuen tratamendurako eta kudeaketarako programa informatikoak (Zeharkakoa)	Iraupena	40
	Segurtasun-neurriak eta ingurumeneko neurriak laborategian aplikatzea (Zeharkakoa)		40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0052_3 LABORATEGIKO JARDUERA ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA, PROZEDURA ETA ARAU ESPEZIFIKOAK APLIKATUZ gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapen osoarekin, eta LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin, kalitate-kontrolari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Kalitate-kontrolako planak interpretatzea, laborategiko jarduerak antolatu eta ikuskatzeko irizpideak betez eta, laneko prozedura normalizatuetan, alderdi giltzarriak jasoz.

EI1.1 Kalitate-sistemako kontzeptu guztiak laborategiko berezko jarduerarekin erlazionatzea, nola aplikatzen diren azalduz eta haien beharra justifikatuz.

EI1.2 Ikuskaritza terminoa azaltzea, kalitatearen ebaluazioarekin erlazionatzea eta ikuskaritzak egiteko erabiltzen den dokumentazioa identifikatzea.

EI1.3 Organigrametatik abiatuta kalitatea kontrolatzeko sailaren antolamendua eta funtzioak enpresaren gainerako sailenekin erlazionatzea.

EI1.4 Denbora-galtzea saihesteko eta erroreak minimizatzen ordena eta lan-plan baten burutzapena baloratzea.

EI1.5 Laborategiko eguneroko lana programaren arabera antolatzeko proposamena egitea, lehenetsun-eskala ezarriz.

A2: Laborategiko jardunbide onak edo beste kalitate-sistema batzuk erabiltzeko premia baloratzea, eta laborategiko zereginetan argibide gisa erabiltzea.

EI2.1 Laborategiko jardunbide onen helburuak eta haien aplikazio-eremuak deskribatzea.

EI2.2 Laborategiko jarraibide onak interpretatzea, laneko prozedura normalizatuen forman idatzitako argibideak erabiliz.

EI2.3 Laneko prozedura normalizatuen kontzeptua kalitatearen bermerako programa baten behararekin erlazionatzea.

EI2.4 Laborategiko jardunbide onak arlo hauei bereziki aplikatzea: - Materialen, ekipoen eta zerbitzuen kontrola eta biltegitzea.

- Ekipoen kontrola eta prebentziozko mantentze-lanak.

- Prozesu analitikoaren metodologia.

- Ekipoak kalibratzea.

- Bezeroari zuzendutako laguntza tekniko eta dokumentala.

- Dokumentazioaren tratamendua.

- Kalitate-kostuaren programa.

- Txostenak erredaktatzea eta analisiaren dokumentazioa artxibatzea.

EI2.5 Laborategien arteko eta laborategi barruko kalitate-kontrolaren kontzeptua azaltzea.

Edukiak

1. Laborategi batean kalitate-sistema bat aplikatzea.

- Laneko prozedura normalizatua elaboratzea, ikerketa jakin baten protokoloei jarraituz.
- Kalitatearen bermea. Laneko prozedura normalizatuak. Arauak eta normalizazioa. Ziurtagiriak eta akreditazioa.
- Laborategiko lanak ebaluatzen teknika eta metodoak.
- Prozesuaren eta prozesu-mapen kontzeptua.
- Lan-prozesuen diagramak.

2. Laborategiko kalitatea ziurtatzea.

- Kalitatearen oinarriko printzipioak. Kalitatea laborategian. Kalitatearen kontrola. Erabateko kalitatea. Laborategiko eskuliburuak eta kalitate-sistemak (ISO 9000, ISO 17025, BPL, etab.).
- Kalitateko eskuliburuak erabiltzea eta laneko prozedura normalizatuak aintzat hartzea.

3. Laborategiko produktuen analisi, kontrol eta kaliterako teknika estatistikoak eta dokumentalak aplikatzea.

- Dokumentazio- eta komunikazio-teknikak.
- Txostenak egiteko teknikak.
- Erreferenziako materialak.
- Kalibratzea. Tresnen kalibraketari buruzko kontzeptuak (balantza, pH-metroa, absortzio atomikoa, pipetak, etab.).
- Ekipoak kalibratzea eta kalibratze-ziurtagiriak ebaluatzea.
- Ikuskapen-, neurketa- eta proba-ekipoen kontrola.
- Esangura-saiakuntzak. Erregresio-zuzenaren ebaluazioa: konfiantza-bandak eta hondarrak.
- Esangura-saiakuntzak egitea eta erregresio-zuzen bat egitea.
- Aldagaien eta ezaugarrien arabera kontrol-grafikoak. Kontrol-grafikoak interpretatzea.

4. Lana eskura dauden baliabideen arabera antolatzea, kalitatea, errentagarritasun ekonomikoa eta segurtasuna irizpidetzat erabilita.

- Giza harremanak eta lanekoak.
- Idatziz eta hitzez komunikatzeko teknikak.
- Bezeroekiko komunikazioa.
- Denboraren kudeaketa eraginkorra.
- Lantaldeen funtzionamendua.
- Bileren dinamika.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: **Analisi kimikoa**